



ALDEZ AURREKO KONTSULTA, FORU DEKRETU PROIEKTU HONEN GAINEKOA: ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN FRUTA ARBOLAK LANDATZEKO LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK EZARTZEN DITUEN FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETU PROIEKTUA

Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenaren, I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuz, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkartasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak,
- b) onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna,
- c) arauaren helburuak,
- d) ordezeko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak.

Aurreko hori betez, proposatzen da kontsulta hau egitea jakitearren zer iritzi duten herritarrek eta ordezkartza erakundeek, Arabako lurralde historikoan fruta arbolak landatzeko laguntzak arautzeko araudi bat ezarri asmo duen xedapenak eragin ahal dienek.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute **8 egun naturaleko epean**, *aurrezkontsultak@araba.eus* helbide elektronikoko postontziaren bidez.



AURREKARIAK	Laguntza lerro berri bat da, lehen araututa ez zegoena.
KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	Nekazaritza jarduera dibertsifikatzen eta mantentzen laguntzea, tokian tokiko barietateak edo agrobiodibertsitatea zaintzen eta hobetzen, eta paisaia zaintzen. Sagarrondoa, intxaurrondoa edo olibondoa bezalako landareak interesgarriak dira gure lurraldean, eta laguntzen dute adierazitako helburuak lortzen, Arabako nekazarien nekazaritza errentaren gehikuntza ahalbideratzeaz gainera, holako laboreak ezarriz.
HURA ONARTZEKO PREMIA ETA AUKERA	Beharrezkoa da fruitagintza sektorearen eskariari erantzuna emateko, ezin baititu eskuratu nekazaritza ustiatagietako inbertsioetarako ezarritako laguntzak; izan ere, kasurik gehienetan ez du betetzen jarduera nagusia nekazaritza izateko eskakizuna.
XEDEAK	<p>Laborantza alternatiboak sustatzea nekazaritza ustiatagietan, eta frutagintza sektoreari laguntzak eskuratzen laguntzea.</p> <p>Arabian sagardotarako sagarrondoei dagokienez, erantzuna ematea EAeko sagardogintza sektoreak bertako kalitatezko sagarrak aldizka eta nahikoa den kopuruan edukitzeko duen premia larriari, bai sagardoa egiteko, bai zumoak egiteko.</p> <p>Gure lurralderako bereziki interesgarriak diren beste fruitu arbola batzuen kasuan, nekazaritza jarduera dibertsifikatzen eta mantentzen laguntzen dutelako, tokian tokiko barietateak edo agrobiodibertsitatea zaintzen eta hobetzen, eta paisaia zaintzen.</p>
EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)	Ez dago beste irtenbide egokirik mota honetako laborantza alternatiboak sustatzeko.